DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

ARGIA

ZERUKO

★ ★ ★ 1954 - Dagonillak 30 - ASTEKARIA - XXVII'garren urtea - 77'garren Zenbakia ★ ★ ★

(Ikusi laugarren orrialdean)

Datorren igandean Pernando Amezketarrari Omenaldia

Gipuzkoa'ko musikalari ta kantariak Torrevieja'n sarituak



DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

BIZKAIA

GERNIKA

Andra Mari jaiak igaro doguz joan dan astean. Aundiki modura; bakoithzak al ebanik aundi uzaiñik egokiena egun bakoitzari erantziz.

Andra Maria'ri, Agur Erregiña abeztu yakon bespera arratsean. Jente gitxi eleizan. Geienak zarrak. Gazterik oso gitxi. ¡Eleizea ta eleizkisunak eztira, antza, aurrerakuentzaz zer ikusi dauzkan gauzak...! Gero, biribilketa: ¡Emen bai gaztedia erruz!

Kafe, zine, taberna, pelota-leku eta abar, jentez borborka. Geiago eziñez. Bada dirua, bada nor geyagokoa, bada aundi uzaiña.

«San Roke», Gernikako zaindarianen eguna. Eleizea gañezka. Danerako dago jentea. Bai arraztiko erromerian be. Nundik eta norakoa dogu onenbezteko gaztedia? Nok jakin? Ay gaztedi au beste asmo batzuekaz orren erdi arduratuko balitza!

«San Roketxu» Gernikatarren eguna. Orraintxu arte Gernikatarrena; Irugarren egun ori erri geienetan etxekoentzat ei izan da; gaur nik dakit ba norena. Ta era onetan ospatu dira aurtengo Andra Mari jaiak. Umeak barraken zirenaz ta tixilin-otzez ixututa, gazteak mundu soro oneri satirik egokiena kendu guraz eta zarrak... gaurko izatea ta joan zan aldi obea gogoratuaz, keskaz eta biotz miñetan.

ALPER

SESTAO

Azkenean, ordu batzuk barruan igarota gero urten dabe gerizpetik gure mutillak, osasunez eta batzuk bost, beste batzuk ogetabost «orlegi» gabe. Ez dakigu zer egingo daben ainbeste dirugaz gure lagunak. Txistulariari oroigallu bat jazo edo.

E'tar J. A.

B'ERMEO

TA TXISTULARIAK, ZER?

«Esandakoaz gain, lotzakarria iruditzen zait, txistularirik ez daukan erria, koxkorra izan da ere» Ulemendik diño.

Azpaldietan ikusten gagoz kanpoko txistulariak etorten dirala gura jaiak alaitzen. Zergatik?

Gure erriak len entzute aundia artu eban, txistulari onein bitartez.

Zenbat txapelketa irabaziak? Zenbat urteetan Euzkalerri guzian izan dira gogoratuak? Eta orain, zer gertatzen da?

Ayuntamentuak neke asko barik barriztu leike txistulari taldea, baña ez iñoiz txistulari barik euki erria.

«ZERUKO ARGIAREN» bitartez egiten dogu dei au, ia lenbailen zuzentzen dan okertu yakun bide au.

Bermeo'ko txistulariak
Ludian ez obeak,
Astu zuen goraberak,
Gomuta lengo egikerak,
Zarielako Bermeotarrak,
Ez astu erritarrak
eta aurrera zuen jokerak!

U'tar J. M.

ASPALDIKO JAIAK

Dagonilla edo Agustuaren 15 eta 16'an jai andiak ospatu ziran. Eta 16'an, San Roke egun andia, gure Tala'ko erromeri-eguna eta antxiña lez izan ziran jolas eta olgetak. Era guztietako abezti edo kantuak entzuten ziran, ¡tira, danak ziran pozik eta... or konpon!

ANDRA MARI JAIAK

Irallaren 8'an ospatuten dira gaurko Bermeo'ren Erri-jaiak, Almika'ko Andra Mariak, eta baita be bai, 16'an Santa Eufemia jaiak. Entzun dogu aurtengo jaioak iñoizkoak baño obeagoak izan bear dabela, eta irakurle, Bermeora etorteko asmoa badaukozu, ez itxi etorri barik, bertan aurkituko zara egizko Euzkalerrian eta zure poza izango da.

ERRI LANAK

Uste dan baño andiagoa egin da Bermeo. Lamiaran erreko zubitik asi, Demiku-gane, Artike-bide, Arenondo-bide, Tala-goi, Artalde eta Izarretatik zear etxe asko egin dira; zabaldu eta zabaldu doa gure erria eta onek arzo asko dakar errikko gora-beratan: bada edateko ura exkaztu egin da eta onez gañera osasun-gauzak edo saneamientua be barristu egin bear, eta gauza oneik arteztu eta zuzenduteko gure agintariak lanean diñardue, kaleak edegi, lubanak egin eta tubo lodi eta sendoak ezarri. ¡Ondo urten dagiala danak, Bermeo'ren onerako!

ETXEKUA

BILBAO

ONDARRETAKO GAZTELUAK

Ondarretako Gaztelu Txapelketan aurrenengo saria Bilbo'ko Roberto Orrantia mutikoak irabazi zigun, eta bigarren saria Donosti'ko Eduardo Uria mutikoak. Txapelketa «Blanco y negro» aldizkariak antolatua zan eta mutiko biak Avila'ko uria ikustatzen izan dira.

Orain mutiko biak Prantzi'ko La Baule'n Paris'ko «Le Figaro»'k antolatu duan mundu guziko txapelketan jokatuko dute. Eztira makalak izango, an ere sariren bat jasotzen ba-dute.

BILBO'N AIDEKO JOLASAK

Bilbo'ko Aide-kanpoa aukeratua izan da egazkiñekin aidean komediak egiteko. Mundu guzitik etorriko dira egalari yayoenak, bakoitzak bere abillidadea erakutsi dezan txapelketa ontan. Oraingoz amaika errietakoak izena eman dute: Ego aldeko Aprika, Txekoslobakia, Iparr-Ameriketa, Prantzi, Ingalaterra, Hungria, Alemani Sarkaldekoa, Suiza, Errusi ta Espaiñia. Errusi'ko taldea dator osoena.

BARAKALDO

BARAKALDO'N LABE BERRIA

Bizkai'ko Labe Garaiak oso ezagunak dira «Altos Hornos» izenarekin. Orain Labe Aundi bietako beste bat sutu da. Labe berri onekin, Barakaldo'ko lantegi orrek askoz lan geiago egin al-izango du.

ZUMARRAGA

DAGONILLAREN 30.ª OITURA DANEZ

Gure Erriak, egingo dio bere ikertaldia Arantzazu'ko Amari. Ibil aldi ortara juan nai dutenak eman beren Izenak. Diego Urdangarin Alaben etxean, alik lasterren.

ERREKARTE

NAPARROA

TAFALLA

TAFALLA'KO ERRIA JAIETAN

Tafalla jaietan degu ta bertako jendeak ba-daki alaitasuna zer dan eta nola ekartzen dan. Eta ango zerbait aitatzearren, gogora ekarri nai degu bertan jaieratzen duten Sebastián Donearen Iduri bat. Naparroako errege Karlos Irugarrenaren idazkariak egin-arazia da, ta erriak gaitz aundiren bat edo beste ezbearren bat sortzen zaionean, Santu onen irudia atera oi-du prozezioan. Izurri aundietatik askatu izan du, diotenez erria, milla bosteun da larogei ta bederatzigaren urtean lenbizi ta milla zortzireun da berrogei ta amaboskarrenean urrengo. Tafallarrak ez daukate Santu au saltzeko.

IRUÑE

NAPARROA'KO IKASLEENTZAKO IKAS-LAGUNTZAK

Egun auetan Iruñe'ko Udalak izan duan Batzaldian, ikasleentzako bekak zabaltzea erabaki da. Ortan gastatuko dira berreun da berrogei ta amar milla pezeta. Geroago ta jatorrago ari dira gure anai naparrak Jakintza alde jokatzen.

ETXALAR

ETXALAR'KO USATEGIAK

Irun'go Eresbatzaren zuzendari dan G. Bastida jaunak «Etxalar'ko Usategiak» izena duan eresia antolatu du. Eres-lan berri au aurrenengo Miarritze'en joko da asteartean.

Irun'go Akademia'n ari dira saioak egiten, eta lengoan oso ongi artua izan zan entzun zutenengandik.

BURGUETE

BURGETE'KO EUSKAL JAIAK

Auritz da euskeraz Burgete'ren izena. Aspalditik inguratzen da erri artara uda-aldia igarotzera alde askotako jendea. Bereala aitzen da an beroa ta negua luzea sortzen zaie errikoei. Orain ango Aiuntamentuak Euskal-Jaia eskeñi die udazaleei.

GUIPUZKOA

AZKOITIA

ERRIETAKO JAIAK

Gure errietako jaiak ba-dute guretzako alako amets eta usai zoragarria. Udaldian, batez ere, ikusgarri dira gure errietako jaiak eguzki betean. Gure txikitako oroipenak berritzen zaizkigu etxera joaten geranean senideta erritarrak ikusiaz.

Aurten, guk ere egin degu gure erriko jaietara agerraldi bat. Urteak ziran azaldu ez giñala ta ba-genduan azkura pixka bat an zer ikusiko. Zoragarriak Meza Nagusia ta bertan antxiñatik kantatzen diran Salbe ta Agur Maria. Betiko txistu ta banda soiñuak kale ta plazetan; baiña itxuskeri batek sutan jarri ginduan.

Aurreko urtetan asita, erri erdierdian jartzen dituzte peri-txabolak, Tiobibo ta abar. Erriko gizajoak aien zarataz naikoa martiri gelditzen dira jaiak igaro arte. Baiña aurten bete dute aurreko urtetako neurria. Elizaren aurrez aurre jarri digute alako tutulumendi jira-birako bat, Elizataria erdizka estalita uzten dutela.

Itxuragabekeri ura ikusi nuanean, atera zitzaidan aotik: «Noizko dira bonbak?».

Jainkoagatik! —nere erriko agintari prestuok— etzazue orren merke saldu gure erriaren izena! Munduko diru guziak eztu balio orrelako itxuskerririk errian lagatzerik. Azkoiti'ko errak noizbait asmatu bear du jaietan beste leku bat, erritik kanpora txabola oiek jartzeko. Orrela egiten da beste errietan.

BERTSOLARI TXAPELKETAK

Azkoitia'n Manuel Olaizola ta Pedro Aizpurua, biak Zeztuarrak, gelditu dira nagusi bertso txapelketan. Amaika bertsolari azaldu ziran ta goizetik zazpi atzeratuak gelditu ziran. Arratsaldeko lau bertsolari genituan jokatzeko. Eta auetatik ostro beltxa irabazi zutenak esandako biak, Manuel Olaizola, Uztapide bertsolari zarraren illoba degu. Ezta, beraz, ezpalik paltako geroko urtetan ere, etxe orretan.

TOLOSA

ORIA IBAIAREN GARBIKETA

TOLOSA'k kezka aundia zuan Oria ibaiaren ujola bildurrez. Orregatik, aspaldi asiak ziran, ibaia garbitzen eta ormak jasotzen alde bietan. Lan ederra egin da, ta egitekoak luzatu ba-dira, ezta izan lan ortan ari diranen erruz, ezpada ibaiak ur aundiak ekarri dituelako urte auetan, eta orrela, udaran bakarrik lan egin izan dute, besterik ezean.

Zorionez, aurtengo Urrillerako lan guziak bukatuak geldituko dira ta ibaia ziaro garbitua geldituko da. Ezta lan txikia izan iru milla kamioika baiño geiago ibaitik ateratzea. Orain pabriketako zikiñen kontua erabaki bearko da.

DONOSTIA

AÑARBE'KO UR-OSIÑA

Donosti'ko Ajuntamentuak bere batzaldi nagusian erabaki aundia artu du urirako ur geiego ekartzeko. Ortarako, Añarbe'ren enbalse edo ur-osiñaren aurretiko lan-agerpena ontzat eman du. Ur-osin ori egiteko, irureun da amaika milloi pezeta bearko dira, ta Gobernuaren laguntza eskatuko da. Beste erabakiak, Donosti'ko auzoetan argiak geitzeko neurriak artzeko izan dira.

ARANTZAZU

ARANTZAZURA BIDEAN

Arantzazu ta Loiola dira Euskalerrian bi erromes-leku izen aundienekoak. Gure gazteriak urtero artzen du bere eguna leku oiek ikustatzeko ta an zeruko Jauna ta Beraren Ama agurtzeko.

Aurtengo Arantzazurako Eguna, illa onen 29'an izan dute gazteak. Beti bezela millaka joan dira gaubijilia egiteko Oiñati'tik gora. Gure mutillak zerura begira amets egiten dute bitartean. Euskalerria ez da galduko.

AUTOSERVICIO bilbao S.A.

Estación «ETXEBARRI»

Ondo joan eta Ondo etorri ETXEBARRI (Vizcaya)

MUEBLES

FABRICANTES UNIDOS

Era guzietako etxekotr asteak, iñun ezobeak!

Estazio kalean ZARAUTZ

1.896 1.964

GIPUZKOA'KO PROBINTZI-ERATETXEA

(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru bearretan gure "PRESTAMEN SERBITZARITZA"z (Servicio de Préstamos) baliatzaitez.

Zure baserria erosteko edo obetzeko
Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko
Aberea —azienda— erosteko edo obetzeko
Baratzeko frutuak obetzeko

Jakinbidean jarri zaitez Donostia'ko gure 7 ofizinetan eta Probintziako 59 sukursaletan

Etxeko-andre: iraun arazi zure arropei onoko jaboi onein:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezu
ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilli beti
Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi
JABON LAGARTO, garbiketarako jaboi bakarra
Etxeko-andrearentzat nerkamerik egokiena,

¡¡JABON LAGARTO!!

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

Euskal irratsaioak

BASERRIAREN ALDE

Banen baneko aziyak

Ongarri ta abonoak

Belar Zuloat

Torrelavega'ko Perira joan etorriak

Baserri, lur-tresnak ta abar

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

GURE ELIZAK

GURE erriak zabaltzen ari dira lekuz eta ugaltzen bizilagunez. Alde guztietan eliza berriak jaso beharra degu, beraz, eta ortarako erriak nolanai zabaltzeari geiegi duten eliz-barrutiak lana asko zailtzen dute ta animen artzaiak beren ardiak ezin dituzte bear bezela ezagutu.

Erriak eta auzoak zabaldu-ala, eliza berriak egin bearra degu, beraz, eat ortarako erriak nolanai zabaltzeari emateke, gure lana itxuraz egitea ta aurrez erabakitzea komeni zaigu.

Au guziau platerera dakargu, oraintsu gure Gotzai jauna baztarrak ikusten ibilli dalako, eliza berrientzako lekurik egokienak nun ditezken asmatu nairik.

Ori da buruz jokatzea; ez okerra eginda gero negarra jotzea. Auzo berriak sortzen ari dira egunetik egunera. Ez gaitezen lotan egon, etxeak nun-nai eta nola-nai jasoaz eta egoki egin zitezkean lanak eragabe egiñaz.

Alde oietara datozen bizilagunak eroso izan dezatela beren elizarako bidea. Ez baztar batean, ezpada lekurik nagusienean eta eskurakoienean. Ba-ditugu Euskalerrian eredu ta ispillu bezela artu ditzakegun plazak, Erriko Etxea, Pelota-tokia ta Eliza alkarri begira dituztenak. Aietatik ikasi dezagun auzo berriei ere nagusitasun eta egokitasuna ematen.

Nork ez ditu ezagutzen Elgoibar'ko plaza, Andoain'go eliz-aurrea ta beste ainbeste leku erakusgarri? Aien arabera bear genituzke gure eliza berrien tokiak.

Errietako etxeak Eliza Nagusiaren itzalpean ain egoki zabalduak, aurrerako ikasbidea ematen digute. Iraun dezagun gure aurrekoen urratsetan. Gure erriak eutsi bezaiote lengo usai ta egiturari. Gerokoak ez gaitzatela madarikatu ta ezjakin arlotetzat jo.

Euskalerriak bere izaera gorde beza zintzo. Gure mendialdeak, gure itxas-baztarrak, ez dute galdu bear lendik dakarten giro ta itxura. Orrela asmatuko degu lengoa ta gerokoa tajuz alkartzen, gure aritik irten gabe.

Txapelaundiak eta txapeltxikiak

Santiago Aizarna jauna «barojianoa» da, au da Baroja'n aldekoa. Nigatik ondo dago, jarraitu dagiola urte askotan. Bere aoz, Baroja ta oraingo ta betiko aldezleak txapelaundiak omen, espiritu edo gogo zabalekoak, gañerantzekoak, au da, zerbaitegatik edo zerbaitetan beroien iritzietan berdin ez gabiltzanok txapeltxikiak edo espiritu extukoak. Berak ala dio ta ala izango da. Ori esan du Xantik ez dezagun atera txintik. Bañan txapelaundiak edo espiritu zabalekoak, ain espiritu zabala izaki, nunbaitetik badute eskubide edo jakinduri, edo almen, gauzik zirt edo zart erabakitzeko. Espiritu zabalekoak konprensio geiago bear lutekela espiritu extukoekin? Bost ajola. Oso goitik begiratuta berak esaten du, bere zabaltasunarekin muturka etorriaren: Zuek espiritu extukook, txapeltxikiok, gixaxoak, muturretan ematea ere merezi ez dezutenok makur zaitezte gure aurrean, gogo zabalagokoak goradenez, jakintsuok eta...

Baroja goi-goi maillaraño goraipatu nai du. Euskal baratzan bera omen zaindari onena. Bera euzkaldun jator eta osoenetakoa. Au dana barkatu dagiogun gure espiritu extuarekin, Bañan ortik aurrera euzkaldunen aurka esaten ditun gauzei arpegi eman bearko. Bai, bada. Bere esanetan, gizonak bi mailletan bereziak omen gera: olloak eta arranoak. Baroja, ego zabaleko arranoa, noski; besteek ollo. Au ez da guztia. Gero, gañera, euskaldunak goroldio eta untzaren antzekoak omen gera: Lurrekoak, gerekoiak, espiritu extukoak, gogoaren aunditasuna ito nai degunok, au da txapeltxikiak. Gure oitura zarren zaleak geranok Baroja'ren etsai omen gera «universalistak» ez geradelako.

Aztertu dezadan gauza. Nere iritzi motelean berea ematen diot idazle edo literako bezela. Espiritu zabaleko ortan eztabaidirik ez diot jarriko. Bañan, euzkaldunentzat eredu bezela jartze ortan ez nago berekin.

Berak, Aizarna'k bezela orain, euzkal erria maiz aztintzen zun bere espiritu zabalean ez zebillelako. Bere personajeak euzkaldunak dira, ausartak nai ba-dezu, bañan ausartak bere gizon izatean ez euzkal erriko edo Euszalerriko gizon bezela. Baroja'k, naiz eta gure edertasunak apainki azaldu ez du euskal gogorik, ez eta ere bere personajeak. Ontan, Pierre Loti bat, naiz eta prantzetarra izan, euzkal biotzaren kutsu geiago du. Baroja'ren personajeak ez dute, esatebaterako, Salgari'k nobela batean nungotarra dan galdetu dioten euzkaldun batek duan erantzuna. Kanpion eta Elizalde baten nobelak ere universalismo gutxiagorekin gure erriaren maitasun inguruan geiago dabiltz. Noiz jartzen du Baroja'k «Yolanda» nobelan bezela erri guztia gure oituren alde? Noiz biltzen du —Pierre Lande'k berak «Bilbilis»'en— gure erria leizezulo batean bere bizia, oiturak, izkuntza, eta izakera salba al izateko mundua apurtzera dijoanean? Eta al ba-zukean mundu guztia bai salbatauko, bañan eziñean bere erritik azten da. «Orixe»'k eta Lizardi'k bere erritik saltatzen dute ludi zabalera. Baroja'k, bestalde, bere erriarengatik ajola gutxi.

Aizarna jaun ber-berak damait bide irudi bat jartzeko, gutxietsitako goroldioarekin: Baroja idazle azkarra da, ibilkari jatorra. Burua txapelaundiarekin eta biotzean espiritu zabalarekin gure mendiètaar irten da. Ba-du lagun bat, idazle motelago bat, ibilkari exkaxagoa, espiritu estuagokoa. Ara, zelai batean Aizarna'k zapuztutako goroldio artean xixa eder askiak. Baroja'k, azkarragoa izaki, lenako iritxi ta lenago zapelaundia bete. Naiko lanez bete du besteak bere txapeltxikia. Itzulian Baroja'k etxera elduta xixarrautzopil ederra antolatu du. Eta ba-du egun batzutarako zer jan. Zapaelaundiaren universalismoa etxeko sartagian gelditzen da, ontatik bizi da-ta.

Txapeltxikiak, eziñean ere, ikusten duan mendi espiñeraño eldu nai du. Emendik begiak galdu ditu euzkal erri zabalean, ta ikusten duan erri-ortan zabaltzia bere xix apurrak, pentsatu du. Xix bat ez beretzaz, xentimorik ez beretzat.

Auxe ikusi du euzkaldunak Baroja'n. Orregatik, Aizarna'k dion bezela, berarekin ez dago. Euzkaldun erri onek ez du agian Aizarna'ren azkartasuna, bañan bai naiko buru ezagutzeko nork maite duan eta nork ez. Euzkaldunak ongi baidakuste universalismo ori beti bere kaltetarako aitatzen dala eta izan dala. Universalismoa, izan ere, ondo dago bañan nor bere erriaren ondoren. Baroja onela izan ba-litz txalo joko genioke eta euzkaldun bezela, eta txalo bero-beroa joko genioke bere jarratzallei Euzkalerrirako eta euzkal erriaren biotzean sartzen diran nobelak idatziko balituzteke.

Bitartean, zapelaundi ori kenduta agur egin dezaidakezu eta espiritu zabalekoa zeranez bai ere barkatu.

Pena aundi bat artuko genuke betiko zuek zapelaundi ta gu txapeltxiki gelditzea.

URRUZOLA'tar E.

INTELEKTUALAK

LUIS MUJIKA

Ez dago zalantzarik, erri batean beraldiko influentzia daukela jakintsuen eta goi-maillatako gizonen jokabideak. Erri xamurrak goikoen jokabideak eta eginkizunak berritzen ditu, eta aiek estimatzen dutena azkenik onartzen, ta aiek zapuztua, uzten.

Ontan ere kalte asko izan du euskerak. Euskalerria'n, adierazi dugunez, "jauntoxoak" eta intelektualak beraldiko bakardadea egin zioten euskerari ia XX'gn. gizaldizarte, ta gero ere neurri ainbatean. Oien artean etzan egon euskeraren balio-konzientzirik filologuak euskeraren aberastasuna arkitu zuten arteraño. Arrezkeroz ere sasi-intelektual batzuk euskerari ardura ta itzal gutxi damaiote, ardura ori utilitarismoarekin nastu dutelako ainbatean. Benetan, gauza sikolojiaz ikusi bear da, ta gogoan eduki intelektual oietako asko alako egókera ta giro txarretan arkitu dirala euskeraren alde jokatzeko. Unamuno, ta Baroja batek, agian, etzuten edukiko giro-sikolojiku onik euskeraren arrerarako...

Beraz, seguru gaude, Aita Vitoria'k bere "Derecho internacional", edo Unamuno'k, Baroja'k edo Zunzunegui'k bere nobeletako erdiak euskeraz idatzi bazituen, gaur gure izkuntzak eluke eriotzoririk, eta erriak ere ez euskera-konplejurik. Donosti'ko Getari-kalean euskera egingo litzake gaur, eta Bilbo'ko Atxuri'n ere bai.

Gure intelektualen errua ori izan da. Asko etzeuden esnatuta euskera-konzientzira; ta beste batzuek zapuztu egiten zuten arrokeriaz. Gure euskerak irurogei urte ta geiago daramazki konplejuauen burrukan, eta oraindik ere ez ditu gaindu. Gaur da ordua, gure jokaerak garbitzeko, ta itxura ona dator.

Bai, gaur intelektual ta karreradun ainbeste dira, lege-gizon, injenieru, sendagille ta teologuen artean euskera balioari eusten diotenak. Sozialki ere euskeraren snobismua sartzen asi da aberats eta aristokratiku-mailletan. Onek gauza on asko ekarriko dizkio euskerari, lehen kalteak eraarri zizion bezela. Orrela emendik berrogei urteera erri xeeak ez du edukiko euskeraren lotsarik. Pentsakera ta jokaera intelektual-maillatik errira berrogei ta amar urtean pasatzen dira. Gaur erriak orain 50 urteko egoera bizitzen du euskeraganako, intelektualak orduan oiek zeuzkatelako; gaur aldatzen doaz, eta jokaera oiek berak aldatuko ditu ere erriak emendik 50 urtera.

Euskeraren gaitza ori izan da gizaldien zear. Euskerari dokumentu-ofizialtasuna erregeak ezezagutzea oso kaltegarri izan zaio; ofizialtasunarekin etortzen da literaturaren indarra ere, idazleak eta jakintsuak erregeak eta agintariek laguntzen duten izkuntzan jarduten dutelako. Bañan alako astakeria bota genduan ia euskera bakarrik egiten zan gizaldi aietan ere, euskerari etzitzaion ezagutu ofizialtasun ori; etxeko jabe giñan eta erderera joaten giñan ofizialidade billa, euskera erriaren umiltasunerako utziaz bakarrik, goikoeuspenik gabe.

Gauzak pixkanaka aldatzen ari dira. Euskerak kulturadunen artean kemena irabazten ari da. Beraz, jakintusu ta aristokratiku oiek guraganatzen ditugunean salbatuko dugu euskera, erriaren euskeraganatzea konklusio bat izango dalako. Orregatik pozgarria da bere etorkizuna. Betoz, bada. injenieruak, sendagilleak, lege-gizonak, teologuak euskerarengana samaldan. Filologuak aspaldi etorri ziran, eta zerbaitengatik. Merezi zuelako noski...

EUSKERAZ EZIN IRAKURRI TA

Sarritan gazteeri entzuten zaie, zori-txarrez, euskerazko irakurgai edo aldizkari bat artu ta ezin irakurririk baztertu-ta uzten dutela, "onela etziok jarraitzerik" esanaz, indar egin bear dik irakurtzeko eta ez diat ortarako gogorik, naiago diat erderazko zerbait irakurri, gañera askoz errezago irakurri ta geiago ulertzen bai'dek".

Eta bear bada askotaz ere okerragoa entzungo degu, eta au da. "Ta gañera zertarako euskera? Nik onelakoei esango nieke, zer esatera eta zer esaten ari diran ondo oldoztu edo (pentsatzeko) alegia.

Tamalgarria benetan GURE GAZTEAK, gogorik ez dutela-ta euskeraz irakurtzeke gelditzea. GURE GAZTEAK diot, bai orixe; alde batetik gureak diralako gure izkuntza baztertzen dutenak. ¡Gurea!, Ta gurea danez, gorde, zaitu ta indartu bearra degu, bai izkuntza ta bai oiturak. Izan ere oitura ta izkuntzeetan bai'dago erri baten "gogo" edo espiritua eta gu ez gera nor, gogo au aldatu edo galtzeko, onek ondoren txarrak ekartzen bai'ditu. Ona emen "Euskera zertarako?" galdetzen dutenentzat erantzuna.

Itz oek alderdi batekoeri entzutea, ez litzake ain arrigarri izango, bañan au gureetako norbaiti entzutea, tamalgarria, arrigarria ta mingarria ere. ¡Ta gazte geran bitartean, gogo ta indar au ez izatea nor bere izkuntzarako, benetan tamalgarria!

Beste aldetik berriz, biarko erria gaurko gazteen eskuetan dagoalako. Gertatzen dana geienetan, gaur nolako gaztedi biar alako erri. Orain berriz, Euskal-erria bere seme berrien zai dagon une onetan gazteok onelako joka-bidea artzen ba'degu, zer itxaron lezake gure Ama onek, gogo ta indar pitin bat bere alde egiteko kemenik artzen ez degun gu bezelako semeekin? Ez, ezer askorik ezin izan.

Egia da, geienentzat erderaz irakurtzea, azkarrago ta errezago egiten dala, bañan ikus-dezagun bere sustraia. Bereala azaltzen bai'da "sustrai edo zer-atik ori". Umeumetatik, gure ikastoletan ta gañontzeko irakurgai edo (Liburuak), erderazkoak izan ditugu ta ala irakurri bearra, bañan euskeraz ez degu orrelako erarik izan. Orain galdera bat. Zer ondoren izan du orrek? Danok erantzungo genioko dakusgun bezalaxe, ezin irakurria dala. Bañan au zuzentzea edo ez, gure esku dago.

Ikasi degun erdera pitiñak ez digu batere kalterik egin, baizik, onuragarri izan zaigu; bañan ez du orrek esan nai gurea baztertu bear degunik; len esan bezela gurea dalako galdu ordez gorde ta indartu bearra dugu. Orregatik irakurtzeke ez-bañan, era izan bezin laixter asi bear dugu irakurtzen. Egunero edo noizik-beiñ jardungo ba'gendu, eder-iritxiko genioke ta orduan ez genituzke esango, gutxiago egin, euskera eta berarekin batera beretarrak, zapuzten dituzten koxkorkeririk.

Jaungoikoa'ri esker izan ditugu bai, ongi-asko zaitu eta bere alde lan egin eta ari diranak. Aurrera ere Jaungoikoak nai izan dezala lengoen ondoan beste berri batzuk astea, guk ain maite degun eta biotzean daramagun euskera eder au, indartu eta zabaltzeko.

BASERRI-ETXE

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

Datorren igandean Pernando Amezketarrari Omenaldia

Gipuzkoa'ko musikalari ta kantariak Torrevieja'n sarituak

Agorra'ren 5 eta 6'an, Amezketa'ko errian ospatzekotan dira Pernando Amezketarraren bigarren eunurteburua. Bezperatik asiko dira arratsaldeko seietan Pernando'ren jaiotetxe aurrean jarri dan arria agertu araziaz.

Zazpiretan, Erriko Etxean, Bernabe Oiartzabal'ek egindako kuadro eder bat jarriko dute, Pernando'ren jaiotetxea azaltzen duana. Zortziretan, erriko nexka-mutikoak, Pernando'ren ipui ta gertaerak adierazi ditu zte, bertsolari-saioaz bukatzen dala eguna.

Illaren seigarrenean, goizeko bederatzietan Alegi'ko Txistulariak kalejira alaiak joko dituzte erriko kaletan zear. Amarretan, Meza Nagusia, Juan Maria Lekuona apaiz jaunak itzaldia egiñaz. Amabietan, Pelota-lekuan, Donosti'ko GOIZALDI Taldeak euskal-dantzak erakutsiko ditu. Urrengo UZTAPIDE TA BASARRI bertsolariak saio entzungarria eskeiñiko digute.

Arratsaldeko ordubietan Bazkaritara bilduko gera. Bostak aldean, Antonio Arrue, "Bordari" ta Aita Zabala'k Pernando bertsolariaren oroitza berrituko dute. Bukaera, Aia'ko Trikitixa'k emango dio jaiari.

DONOSTI'KO "STELLA MARIS"

Stella Maris'ko kantari taldea Alicante'ko Torrevieja'n izana da, ta bertan Polifoni Jaialdian lenengo saria irabazi du. Eun milla pezeta jaso dituzte saritzat.

Jaialdi ortan bertan, Habanera-Txapelketan Naparroa'ko Falzes erriko "Coros de Nuestra Señora de las Nieves" kantari taldeak jaso du lenbiziko saria, 75.000 pezetakoa, ta bigarren saria, 30.000 pezetakoa, Kabanillas'ko "Coral Santa Cecilia'k; au ere Naparroa'koa.

Ereskidetza Txapelketan beste bi euskaldun izan ditugu irabazle. Juan Urteaga Loidi, Donibane Lohitzune'n organista dan donostiarra ta Tomas Garbizu Salaberria. Biak gure artean ondo ezagunak dira. Irabazle guziei gure zorionagurra bialtzen diegu. Ezta alperrik Euskalerria kanta-saillean onen goi-maillakoa.

EUSKALTZALEEN BILTZARRA

DONAPALEUN izango da aurtengo Euskaltzale Biltzarra, ta ain zuzen ere, Agorraren bigarren ostegunean, gure aldizkari anai HERRIA'k esaten digunez. Amikuze'ko uri nagusi onetan bilduko dira Bidasoaz aruntzako gure anai arreba euskaldunak.

Lendik dakigu nolako egun ederra izan oi-dan euskaljai ori, ta gure arteko euskaldun asko joan izan dira ango gira ta euskal-arnasa artzera. Pozik agertuko gera alde artan, Jainkoak lagun egiten ba-digu.

ATARIA

Plaza erdian bi dantzari ari dira euskaldantzak ariltzen. Aide garbitan danbolin-soiñuak bere aideak zabaltzen ditu zorrotz. Begoña'ko Amari agurka ta omenez ari dan Bilbo'ko urian gera. Gure goratzarrerik ederrena, Zeruko Amarentzat, gurasoengandik jaso ta seme-alabetara aldatuko degun gure eguneroko jarduna Ballet biurtuta eskeintzea izango degu.

ZARAUZ'KO IKASTOLAK ETA AURRAK

Zarauz'ko ikastolak oso ikasbide aundia ematera dijoaz Euskalerriko Eskola guziei. Ikastola oiek praille ta mojak zuzenduak dira. Askotan negar egin degu, eskoletan eta erlijiosoen eskoletan galtzen dala gure aurren euskera.

Ba, Zarautz'en ezta ori gertatzen Zarautz'ko Ikastolak erdera utzi gabe ba-dakite gure izkuntza ere lantzen aurren artean. ZERUKO ARGIA'n esan genduen, Zarauz'ko Ikastolak AURREN EGUNA ospatzekotan zirala, Agorraren 6'an.

Baiña gerora gauzak bestela erabaki dira ta orain, Ikastola oietako aurrak Donosti'ra etorriko dira ta Turismo Eralguntzak emango digu aur oien aurrerapena Donostia'n ikusteko aukera.

Agorraren 17'an izango da AURREN EGUN ORI Donostia'n. Errietako Maixu ta Maistrak ikasi dezakete zerbait jai ontan. Ia aurrera egiten degun gure euskera eskoletan sartuaz.

BILBO'KO BERIBIL KONTAKETA

BIILBO-"Dirección General de Carreteras" dalakoak, Bilbo'n gaur igarotzen diran automobillen numeroa jakin izan nai du, ta ikusten danez asko ugaldu da azken urte auetan. Bilbo seigarren erririk aundiena da Espaiñian bere irureun milla bizilagunekin, eta bizilagun bakoitzak iñun baiño irabazi aundiagoa du milla bederatzireun da berrogei ta amazazpigarren urtea ezkero.

Egin ziran, ba, kontu oiek eta auxe ikusi da. Milla bederatzireun da irurogei ta bigarren urtean, batekoz beste egun bakoitzean 31.021 beribil igaro ziran uri ontatik. Auetatik 28.435 beribil Bilbo bertatik atereak ziran. Bi milla ta berreun da berrogei ta lau beribil gelditzeke igaro ziran beste lekuetara ta irureun da berrogei ta bi beribil emen geldituaz gero bidean aurrera joan ziran. Ba-da zerbait erri batentzako. Gure Bilbo Aundia erronka jotzeko dago munduan.

TAFALLA AURRERAPEN BILLA

Tafalla, zenbait negartirentzat beraka dijoa; baiña ondo begiratu ezkero, ametz aundietan bizi da ta aurrerapen gosea sortu zaio urte auetan. Orregatik, aurreneko ametsa, errira industria ekartzekoa da. Ortarako ango Aiuntamentuak lurrak eskeiñi dizkie aruntza joan nai duten industrialei.

Galdezka asiak dira zenbait industriko nagusiak, Valentzia, Naparroa, Elgoibar eta Madril'dik. Diputazioak laguntzen die sortu nai duan Industri-Saillarekin. Ortan jarriko diran lurrak, ogei bat hektarea zabal izando dira.

Ortarako bear diran gazte ikasiak, "Ofizial-Eskolatik" ateratzen dira. Orain arte, bertan lan-lekurik ez eta kanpora joan bear izaten zuten lan-billa. Emendik aurrera industri berrietan arkitu alizango dute beren lan-tokia.

Irakaskintza gaietan ere Eskolapioen Ikastoletan egundoko berritze lanak ari dira. Tafalla, nekazari lurraldea da. Lendik nekazaritzarako dituzten lurrak asko obetuko dira Naparroa'ko Ur-bide edo kanala egiten danean.

IRATXE'KO PRAILLETEGIAN

Iratxe'ko Prailletegian "Igel-gizonak" arkitzea arrigarri izango zaizue, noski. "Hombres-rana" erderaz esaten zaien oietakoak ibilliak dira, ba, Bakartegi aretan.

Lendik zebiltzan Lizarra'n Zubi Berriaren pilareak sendotzen aritu izan diranean. Naparroa'ko Diputaziotik jakin zuten, Iratxe'ko Eliza-azpian ba-zala urak artutako lekua ta an sartu dira zer ote-zan ikustera. Elizako orman dagoen ate batetik sartzen da azpi ortara. Ogei ta bi armailla jetxi ta "San Veremundo'ren potzua arkitzen da. Neguan urak gora igotzen dute armailletan; joan dira ba gizon oiek eta bereala orma batekin itxia zegoela ikusi dute aurrerako bidea. Orma aren bestaldean zer ote? Auxe gelditu da ikusteko.

«Apakia» Sorta'ren agerkizunak

«Apakiak», orain arte argitaratu dituan agerkizunak auxek dira:

1.—1961.—**Kontu Zarrak eta Kontu Berriak.** 5 pezta.
2.—1960-1961.—**Nafarroa'ko Bertsolarien Txapelketa.** Diputazio'ko «Principe de Viana'ko» Euskeraen aldeko Saillak antolatua, Euskaltzaindiaren laguntzarekin.
3.—1963.—**Mendizaleen Meza.** (Euskeraz, eta gaztelarez - eta Euskal kantak). 2 pezta.
4.—1962.—**Nafarroa'ko Bertsolarien Txapelketa.**

Eskera: **ZERUKO ARGIA'ra - Okendo, 22 DONOSTIA**

ELVIRA

GARBINDEGIA

Eraman-ekarrierak Bakoitzaren etxera

Zuzenbidea: Grmo. Franco 9'an Intxaurrondo'ko Etxadia'n Urrutizkiña 57293 DONOSTIA

Euskaltzaindia Loiola'n

—Euskal-bideak urratzen—

Iru egun beteak izan dira Loiola'n Euskaltzaindiak bere batzaldietarako artu dituanak. Euskal-saillean gogoz artuak, ala ere. Gure izkuntza gaietan saia ta saia ari diran aidazleen arpegiak ikusi genituan txoko eder aretan. Euskalerriko l a u aldetatik bildu da jendea, ta gazteen berotasuna ere nabaitu da batzaldietan.

Illaren 21'garrenean arratsaldean eman zioten asiera jardunaldi a u e i. Aurrena, Loiola'ko Erretore agurgarriak bere agurra eskeiñi zien bildutako guziei. Lartzabal, Zokoa'ko erretore a r g i a k eman zuan urrengo bere iztaldia, Bidasoa'z beste aldetik euskal-irratsaioak nola dijoazen jakin-araziz. Gure alde onetan ezezik, an ere badituzte nekeak eta izerdiak gure izkera bere lekuan jartzeko. Irakaskintza-saillean ere ikas taldekoak bereak eta bi egin bearrean dira eskoletan zerbait egin dedin.

Villasante Aita prantzizkotarra etorri zitzaigun ondoren, aurrak eskolatzen erabilli diran bide ta legeak aitatuaz. Barandiaran Aita jesulagunak eman zuan berea, Tudela'n euskera nola erakusten duan adieraziaz. Berriotxoa Anai Sailletarrak bialdutako lan bat ere irakurri zan. Onek lizuruxka batzuek prestatu ditu, aurrei idazten erakusteko, kontuak buruz ateratzen erakusteko ta abar.

Lekuona'tar Manuel apaiz jaunak euskeratu ta konpondu ditu eskoletarako aurrentzako irakur-gai errex batzuek. Auek ere kontuan artu dira.

Aurrenengo egun onetan, Mitxelena Luis adiskideak, erantzun eder asko eman zuan gai guzietan, baiña zoritxarrez erdi-gaixorik etorri baitzan, aldegin bearrean arkitu zan batzalditik. Benetan penagarri auxe! Lenbailen sendatu dedilla ta ez dedilla oker aundirik sortu!

Onela joan zan ostirala. Larunbata goizean berriro eman zioten lanari. Aita Zabala'k bialdutako lan bat irakurri zan lenengo. Euskera irakurtzen jakiteak duan alde aundia irakurleak geitzeko, garbi agertzen zuan lan orretan.

Gero, Aita Goikoetxea jesulagunak Eliz-eskoletan eta beste eskola berezietan euskal-irakaskintza nola eraman diteken azaldu zigun. Batez ere, Azpeiti'ko errian berak egindako lana ta eramandako bidea oso jator adierazi zuan. Sei urte daramazki lan ontan, eta lenbizikoan gramatika erakusten asi zan. Bide ontatik ikasleak aspertzen asi ziran, eta orduan beste bide bat artu zuan erakusteko. Etxaide gaztearen JOANAK JOAN liburua artu ta andik sortzen zituan bere oargarriak eta gramatika koxkak.

Bigarren bide au askoz ernagarriagoa izan zan ikasleentzat eta auek zaletzen asi ziran bere lanaz. Onela oitu ziran irakurtzen eta azkenerako ikasleak berak etxetan bukatu zuten liburua irakurtzea. Gauza jakingarri asko entzun genituan, poliki-poliki kontuan artu ta aztertu bearko ditugunak euskal-irakaskintzan.

Oso entzungarria izan zan ere, Aita Goenaga jesulagunak esan ziguna. Aita au aspalditik ari da gure euskera filosofi-aldetik aztertzen. Eta goi-maillako lana atera zaio gure izkerak filosofirako duan gaitasuna nabarmentzen. Zubiri filosofo aundiarekin izan dituan izketak eta artuemanak, oso jakingarriak dira.

Tartetan, beti bezela naikoa zirri-parra sortu zan betiko gure ezpai eta iritzi-burrukak aizatuaz. Zorioneko Euskeraren Batasunerako ze bide artu bear ote-diran, «H» izkiaren inguru sortu dan iskanbillari ere astindu bat eman zitzaion, eta —ia motellak!— beti bezela, bakoitzak bereari eutsi zion gogor eta zetatl.

Euskaltzaleok oso mutillak gera gure ezpaietarako. Baiña batzaldi oietan auxe ikusi da garbi: gure oiñarria Euskera legez eskoletan sartzea izango dala. Ontarako bide batzuek aitatu zizkiguten. Erdera-Euskeran idatzitako liburuxkak eskatzen dituzte Madrilidik, eta egoki litzake lenbailen liburu oiek prestatuko ba-genitu. Eliz-eskoletan ere, Concordatoaren bidetan pokatuaz, apaizak beren eskoletan gure izkuntza aintzat artzen asi ditezke. Kontuak kontu, emen eman bearra dago urrengo pausoa.

Euskal - Batasunari dagokion bidea ere kontuz eta gogorrean azi gabe artu bearko da; bestela, gure jendea bere asarrean gogortu ta beiñere ez degu alkar artuko. Presa geiegi ere ezin dezakegu artu ontan. Eskolak indartu arte, nekez bultzatu al-izango degu gure erria alde batera edo bestera.

Bitartean, bakoitzak bere izkelgian idatzi beza alkarrengana urbiltzen saiatuaz. Bizkaitarrak bizkaitarrez idatzi bezate; giputzez edo lapurtarrez asten diranean, ezin dute ain jator idatzi. Gipuzkoarrok ere, besteren izkelgietan idazten ba-degu, gure esaera jatorrenak eta beste euskal-koxka asko burutik joan-egiten zaizkigu, ta gure euskera ezta ain jatorra izaten. Gerorako saia gaitezen bideak nundik ditezken asmatzen; baiña iñor gogorrean beartu gabe. Onela alkarri errezago amor emango diogu. Oraindik igandeko kontuak aitatu bearrean gaude. Gaurko naikoa onekin.

ETXANIZ N.

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN


Alemani'ko gaztedia ta politika

(JARRAIPENA)

AJOLAGABEAK 50 %

Izenak berak dionez talde onen barruan prolemak ezagutzen ez dituztenak, preokupatzen ez diranak eta prolematzaz ezertxo ere jakin nai ez dutenak sartzen dira. Beraz, ajolagabeak, interesgabekoak, beste dirala ikusiko degu. Onek interesezela gaiñera onartu bear da gazteak euren etorkizuna ain garbia ikustea eta batez ere beren familiko bizitzari ta beren profesio etorkizunari geiago begiratzea.

Orrela uste izan arren gazte auek



era batera esatek erri ta estaduaren goraberatik ertzean dabiltzanak.

«Politikaren gaiñean ezer ez dakitenen» aldemanean prolemaz josiak daudenak eta erremedio gabekoak optimista ugari arkitzen dira. Azkeneko cuek bere bizimodu partikularrean milla prolema dauzkate ta ez dute beste ezertarako betarik, auei politika zer moduz dabillen galdetzen baldin bazaie dana ondo dijoala erantzungo dute, kontentu daudela ta ez dutela bildurrik eta ez dutela uste guda berriro izango danik... Ezin diteke a priori gazte aroetako kontzientzi-eza au baztertu ta kondenatzerik, batez ere nesken artean gertatzen danean. Eta kontuz ibilli bear da oiek kondenatzerakoan bere gai personalak geiegi maite dituztela edo konformistagi ez dira politikan ideia gabekoak, baiñan beren ideiak topiko antzekoak dira: esate baterako beren burua gizon txiki bat bezela daukate eta seguru daude istoria gizon aundiak egiten dutena.

Baita ere buruan sartuta daukate ez dagola indarrerik, aginterik, azkenean edozein gauzak ez dualako ezertarako balio eta dana irixten da eta ez da ezer irixten, eltzen, gertatzen gertatu bear ez duanik.

Beste topiko batzuek: politikak karaktera gaiztotzen duala; emakumeak ez dutela politikan ezer egitekorik; erri bakoitza, nazio bakoitza bere lekuan egon bear du eta atzerritarrak ez dute an ezer egitekorik...

Ajolagabe guztiak, interesgabe guztiak bere urtei, gizonezko edo emakume izateari, bere eskolari, bere jaioterriari dagokionez begiratzen baidin badituzu, oien artean geienak oso gazteak, neska gazteak, baserrietakoak eta eskola elementala edo teknikoa bakarrik pasa dutenak dirala ikusiko degu. One interesezela batez ere jakite gutxiagatik sortzen dala adierazten du.

Gaztedien artean joera onek 50 % biltzen ditu.

Ainbeste izatea arrigarri iruditzen baldin zaigu ez degu ahaztu bear interes-eza au oraindikan aundiagoa dala zaharragoen artean eta gaztedia ta politika beren artean arrotz egiten dirala.

Ajolagabe auek politikara azaltzea edukazioaren zeregin bat da. Politika jakin erazteko bideak oraindikan aurtzaroan arkitzen dira. Asko pentsatu ta landu bearko da gai politikaren edukazioa eskoletako gai ba ez ezik bizitzarako zerbait bezela erakutsi erazi arte.


ESZEPTIKOAK 8 %

Ajolagabehen artean ez jakitea, politikatzaz gutxi jakitea baldin bada seiñalerik aundiena, eszeptikoen

Gazte auetan alkartu eziñeko bi joera arkitzen ditugu. Alde batetik nai dute ta bestetik ez. Alde batetik gazte auek politikari eske berezi ta aundiak egiten dizkiote eta bestetik berriz eske auek ez dituzte beteta ikusten, ezta gutxiago ere.

Izan ere auek ez dute iñola ere leguntasunik onartu nai beren eskabidetarako. Dana edo batere ez. Ez dute konpromisoa maite. Eta orregatik relativistak, zinikoak; eszeptioak biurtzen dira ideiak ez dutelako munduan agintzen.

Zentzuren batean joera onek ideia guztietatik baztertzen ditu; orregatik zearo kritikatzaille biurtzen dira, kritikatzaille zorrotz, burutsu ta gogorrak; onela ipokresia, aunditasuna ta ideia aundia zearo ezerezten dituzte.



Euren esxeptizismoa ez dijoa gizon politikoen zeregiñak aztertzera artean bizi bizia arkitzen da politikari ematen zaion ezezkoa, ta orretzaz gaiñera politikaren kaiñean egiten diran pentsaketa beltz eta goibelak arkituko ditugu, politika gauza zikiña ta nazkantea dana esanaz. bakarrik baizik eta informazio guzturak adieraziko lituzke jakintsu batengan. Dana dala uste det gaurko gaztediaren gauzik seiñalatuena dala ez dutela generazio bezela zeregin istorikorik, ez dutela ta ez dutela izan nai ere. Beren etorkizunatzaz itzegitea, etorkizun istorikoatzaz itzegitea, probintzianoa izatea iruditzen zaie.

EZEREZTZALLEAK 2 %

Auek konprometituen aldrebes aldrebesak dira. Auek gizonaren contra, gizartearen kontra eta Estaduaren kontra konprometitzen dira. Auek gorroto dizete gaurko gizonei ta gaurko gizarteari, gutxienean gaur ezagutzen diran moduan. Ori dala ta, utopi antzean, izugarrizko sistemak jartzea pentsatzen dute.

Gazte auetan eszeptizismoa gorrotoan biurtzen da ideiealogi baten itzalean. Auek zenbat diran jakitea erreza ez izan arren 1 edo 3 % dirala esan diteke.

Azkeneko bi taldetako gazteei eman bear zaien edukazioa nolakoa izan bearko duan pentsatu baiño lehen euren artean geienak tarak edo berbiziko miñ personalak dituztela kontuan artu bear degu. Gazte auek euren tara ta miñak philosophira ta politikara pasatzen dituzte. Orregatik edukatzailleak lenen lenen tara ta miñ oiek sendatzen saiatu bear du, politika ta philosophiaren gaiak ikuitu baiño lehen.

GAURKO GAZTEDIA

Gaztedi baten barruan arkitzen ditugun joera ezberdiñak ikaskizun bat dakarkigu: gaztedi bat ez da zearo berdiña baizik eta batez ere *complexio oppositorum* bat. Gaztedi bati, oso osoan, jantzi berdiña jarri nai izateak XIX'gn. gizaldiko oi-

NAZIO-ARTEKO UNEA

TOGLIATTI'REN ERIOTZA

Komunismoak gizon onen eriotzarekin mundu zabal guztian zeuzkan gizonen artean burutsuenetako ta ballo aundienetako bat galdu du. Frantzia'ko Thorez'ekin bezela azkeneko urte auetan komunismoaren jokabidea ondo ikusteko iñola ere ezin dezakegu ahaztu Togliatti'k jokatu duan papera. Ezin zitekien bestela izan Okzidenteko Partidu Komunista indartsuenaren burua. Ez dezagun ahaztu Italia'n azkeneko elekzioetan lau italianoetatik batek bere botua komunistentzat eman zuala.

Okzidentearen barruan ta are geiago Elkarrekiko Merkatuaren barruan gizon onek eta bere atzetik Italia'ko Partidu Komunistak artutako erabakiak ez dira ondorenik gabekoak. Dakigunez Elkarrekiko Merkatua sortu zan ezkeroztik, Errusia'ri ala komeni ta, Frantzia ta Italia'ko Partidu Komunistak oso osoan eta bat batean bere kontra jarri ziran. Ori orrela gertaturik, naiz eta beste sindikatoak (sozialistak eta kristauak) beren ordezkariak izan Elkarrekiko Merkatuaren ekonomi ta gizarte batzarrean komunisten obedientziko sindikatoak (Frantzia'n eta Italia'n sindikato indartsu ta ugarienak) etzituzten bereak iñoiz ere bidali nai izan. Baiñan gaurko politikan erreal-lismoa da agintari ta gizon burutsu guztiak orretzaz konturatzen dira. Togliatti izan zan komunistak ere Elkarrekiko Merkatuaren zergeiñetan parte artu bear zutela pentsatu zuana ta ortarako alegiñ geienak egin zituana.

Italia'ko Partidu Komunista umezurtz gelditzen da. Ori da persona baten gaiñean bakarrik bizi diran estadu ta partiduen kaltea ta errua. Ori falta ezkero danak umezurtz. Asarreak, dibisioak...

Komunista bezela dudarik ez kalte aundia egin diona Italia'ri baiñan berak esan zezakean ortarako 25 % italiano (engañatu) beregan siñistu zutela.

RIKARDO ARREGI

OSBORNE Y C.ía S. A.
Coñac VETERANO
Coñac MAGNO
Coñac zarrak eta onak

Munduan esaten DANA

The New York Times.

Ego-eguzkialdeko Asia

¡Vetnam, Laos eta Cambodge' rako soluziorik ez arkitzeak, polliki polliki tratuetan sartzera bultzatzen du. Oraiñ Estadu Batuak gogor ukatu dira nolanaiko tratuetan sartzeko, batez ere elkar-izketan jartzeko naiko indartsu arkitzen etziralako eta batez ere onela Komunisten Txina'rekin batera mai berdiñean exeri bearko lukielako. Ta E stadu B atuak K omunisten Txina iñola ere eziñ ezagutu oraingo politikari jarraitzekotan beiñepeiñ. B a i ñ a n noizbait "neutralizazio" gaiak tratatu bearko dira mai batean eta ortarako beiñere baiño obetogo arkitzen dira Estadu Batuak, batez ere Tonkin gertatu ziran zalaparten ondorenean.

Le Monde


Libano'ko lendakari berria

Oraingo lendakari berriak On Charles Helou'k bere karrera guztian, periodista zalarik, lege-gizona zalarik, ministro zalarik, eta Turismo gaietako Ofizinetako bueu izanik, oraiñ Libano'ko lendakari biurtu dan gizon argi onek zera adierazi du, alegia prest egon dala beti libanotar geienen iritziak serbitutzeko.

OIAL BIKAIN BERRI ERAKUSTEGIA
ALDAMAR
Zuzenbidea: Aldamar, 2
(Reina Regente ertzean)
Urrutizkiña 1-54-65
DONOSTIA

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

GAU-TXORI ARRAPATZALLIAK



MOTZOLLO, ONTZ, MOTZOLLO-TXIKI, ONTZ AUNDI, eta beste antzeko Gau-txoriak ezagutzendira, «GAUTXORI ARRAPATZALLIAN IXENAGAZ».

Onek, egaztiyan artian dira, Katua egaztuna'n artian bezelakuak, eta egunaz eskutauta dagoz toki illunetan, eta zuluetan, gauba eta beragaz, illarguia agertu arte.

Euroen begiak, andiyak eta biribillak dira, eta onen bierixanian aurkitzendira, gaba zaliak diralako, eta euroen janariya illunian billaubierdabelako.

Egunaz barregarri aurkitzendira eguzkiyak daukon arguitazuna-gaz, eta itzututa-bezela dagoz euroen zuluetan ezkutauta.

Urtetzenbadira argitara, bierizenian aurkitzendiralako, euroen egazkadia, laburra eta nekesa izango da, eta Txantxa-gorriak eta Txanbillotzak izengodira lelengo agertzendiranak beren aurka, beste txoribatzuen laguntazuna gaz.

¡Ikuztekua da, danaen artian ataratzendaben zalapertakia, Ontza edo Motzollua erdi itzututa eguzkiyan erluze gaz, egunaz aurkitzendabenian.

Arbola baten abarrian jarrita, txori tentel bat dirudi, eta egitendeituzen alegiñak beren burua defenditzeko alperruak dira erdi itzutu-ta aurkitzendalako.

Esanda bezela, txoririk txikienak dira sutzuenak berau burukatzen, eta mokokada ugarikay emonaz, lumerik barik istendabe euroen areriorik gaiztoena.

¡Ikusidaigun orain zergaitik daukotzen alako gorrotua, gure txoritxuak gautxori oneri!

Gaba datorrenian, onek txori txiki zutzuak, Motzollua gandik, beren burua ezkutauta ibiltendira, eta onek arrapatzenbadeituz, iruntzi egitendeituz, arratoi txikibet bezela.

Gau-txoriak, begui andiak daukazelako len esatendodan bezela, illargia dagoenian eta illun-abarrian eiza ugari arrapatzendeu, baña gau illunak izatendiranian, gozia bere ugari pasatzen dau.

Motzollua'ren egazkadia ixilla eta biguna da, bere egoak eta luga fiñak emotendeutze ixiltazunori, eta areriyoa konturatu baño lenago urreratzenda beragana.

Arrapatzendaben txoria, arratoya edo muzkerra, mokuakin buruan jo eta iruntzi egitendau, beren ago zabalagaz, eta gitxiten asetzenda lenengo jan-aldiagaz, baña beren urdalla betetzendabenian barriro eskutatenda beren zuluan.

Gertika tar Jon Martin

FUNCOR S. C. I.

Benetako baserritarrak bear dituzten MAKINAK:

BIRRINTZALLE - ERROTA - NAASTALE

ZERRA - URAGA - URASKA

Europa'ko aurrerakizuni'k onenak, emengo nekazarientzat

ADI TA OROI EZAZU

FUNCOR

AZKAR BEZIN ONDO

ELORRIO — Vizcaya 114

NERE BORDATXOTIK

DANETIK NASIAN

Amezketa'ko alkate jaun prestuak, karta atsegin batean alkarturik, Pernando'ren omenez erri artan egingo diran jaialdien agitarau edo programa biali dit.

Benetan artu dute gauza Amezketa'n. Ala egin bear ere pulamentuzko zeroait azaldu nai danean.

Bezperatik asiko dira Amezketa'ko jaialdiak.

Agorraren bosgarren egunean, bezperan, emango zaie lenen igurtzia.

Arratsaldeko seiretan, Pernando'ren jaiotetxean, bere oroigarritzat jarritako arria agerreraziko da.

Zazpiretan, Erriko Etxean, kuadro eder bat ipiñiko da zintzili.

Pernando'ren jaiotetxea agertuko da dalako kuadro ortan. Bernabe Oiartzabal jaunak pintatua da.

Zortziretan, erriko neska-mutikoak, Pernando'ren ipui eta gertaerak azalduko dituzte.

Ondoren, bertsolarien saioa izango da.

Ona emen agorraren seian egingo diran jaien agerpena:

Goizeko bederatziretan, Alegi'ko txistulariak, kale-jira batekin alaituko dute Pernando'ren jaioterria.

Amarretan, meza nagusi bikaña. Juan Maria Lekuona, apaiz jaun agurgarria izango da izlari.

Amabietan, Pelota lekuan, Donosti'ko "Goizaldi" dantzari talde trebearen ekiñaldia.

Ondoren, Uztapide ta Basarri bertsolarien saioa.


Ordubietan, bazkaria, anaitasunik ederrenean.

Arratsaldeko bostetan, don Antonio Arrue, "Bordari", ta Aita Zabala mintzatuko dira, Pernando bertsolari aundi ta argia zein zan guziori gogaraziaz.

Ondoren, Aia'ko trikitixak ekingo dio lanari gazteen atsegingarri.

Ikusten dezutenez, irakurle maitcok, egun oso ta mardul bat igaro eziñik eztezute Amezketa aldean.

Angp jaialdietan parte artzea, Pernando zanari omena eskeintzea da, batetik, eta euskaltzaletasun bero baten ezaugarria, bestetik.



Bear bada, zuri, atsegin litzaizuke Amezketa'ko bazkaldarren artean izatea. Aurrez izena ematea dezu egokiena.

Bereala adieraziko dizut lan ori nun egin dezakezun:

Donosti'n, "Bar la Estrella" deritzaionean. Telefonoa: 17988.

Tolosa'ko "Bar Txoko'n". Telefonoa: 65699.

Alegi'n, Errikardo Intxausti'ren dendan.

Atzo eskuetaratu nuen karta batean irakurtzen nuenez, Zeuta'n bizi diran euskaltzale sutsu batzuk ere ba-datoz Amezketa'ra.

Don Pedro Azkoitia jauna, Urruztil'go semea, eztago an gelditzekotan. Bere bizitzan gozamen asko artu omen du Pernando'gandik. Iñork bada-ta, merezi omen du, noski, esker ona agertzea.

Orain berrogei urte berebizi-ko billera izan zan Amezketa'n.

Pernando'ren oroimenak bilduerazi zun alako jendetza.

Meza nagusi zoragarri batekin asiera. Toki berezi ta apañetan diputadu jaunak jarri ziran, Elortza lendakari jauna buru zutela.

Erriko agintariak beren aulki jakiñetan artu zuten leku.

Goikoetxea'ren meza kantatu zan, eta ez nolanai.

Bidañi'ko erretore don Balentin Azpeitia jaunak sermoi gogoangarri bat jaulki zuen.

Eun da berrogeitamar bazkaldar izan ziran Amezketa'ko plazan. "Jeme" idazle argiak au zion jantoklari buruz:

"Plazan bai, baña ezin da obeto antolatutako jantoki zabalean, guzion buru diputadu jaun, alkate, erretore, sermolari ta gañerako agirikoenak zirala".

Orain berrogei urteko mallara aurten ez ote gera iritxiko?

* * *

Joxe Salaberria jaunarekin mintzatua nazute lengo egunez.

Salaberria jaunak beti izaten du zerbait jakingarri esateko. Donosti'ko Euskal Festak inguratzen dirancan, batezere.

Donostiar agintariak garaiz jo zuten begiz Salaberria. Euskal festak luzimenturik izango badute, balio duten gizonak jarri bear gidari. Trinidadeko plaza Salaberria jaunaren ardurapean dago, ta Trinidadeko plazan egiten dira euskal kutsuzko jaialdi guziak.

Bereziki ortarakoxe eratutako plaza baitegu.

Etengabeko jarioa izango dute aurtengo euskal festak. Itzaldiak, antzerkiak, bersoak, ume jaiak, aizkolariak, kargajasotzaileak, sokatira, bertsolariak, dantzariak, eta... ¡al dakit nik zenbat geiago!

Donosti'n gure jolas danak izango dute sarrera; bat bakarrik ezta zokoan utziko.

Gipuzkoa'ko erriburua da Donosti. Danen gañetik ibiltzea dagokio, noski, ta asmo ortan dala esango nuke.

Ta, ontan oker enagola jakiteo, muestratxo txiki bat dakarkizutet.

Agorra'ren amabian, amairuan eta amalauean, idi probak izango dira.

Donosti'n izendatu diran sariak ikusita, Gipuzku ta Bizkai'ko idizale danak mugimentuan jarriko dira.

Sekula eztet entzun iñon olako premiorik banatu danik. Nere gogorantzean ezta izan beintzat, eta, aurreragotik eta gutxiago.

Lengo denboretan dirua urriago balzan orain baño.

Lenengo saria, ¡arritu zaltezte!, 20.000 pezetakoa izango da; bigarrena, 15.000 pezetakoa; irugarrena, 10.000 pezetakoa; laugarrena, 8.000 pezetakoa; bosgarrena, 6.000 pezetakoa.

Amalau sari dira guzitara.

Diruz kanpo, lenengo bostak kopa disdiratsuak jasoko dituzte.



Idi probak zure gogozkoak ez izatea ditekena da. Nik ere baditut idi probak baño gogozkoago zaizkidan jolasak.

Alare(ordea, euskaldun baserritarrarentzat ezta jaialdi egokiagorik. Bere soro ta mendi lanetan idiekin dabill; motelak eta giartsuak zein diran azkar igertzen dio.

Idi onaren lana bezela ezagutzen du itzai onarena.

Kaletar askok, euskaldun kaletarrak, alegia, astakeri aunditzat jotzen dute idi proba. Ain gogor eta zakarra dalarik, begira eztitekela egon, diote.

Zezen plaza batean, amar minutuan ill eziñik, bazterrak odolez zipriztindurik darabilkiten zezenatzaz eztute errukirik.

Akulu eztenez dantzatzen dituten idientzat bai orratik.

Bata artea da; bestea, astakeria.

Ba-dira akulurik bear eztuten idiak; akuluá kaltegarri zaienak ere bai. Danetakoak ezagutu ditut gure plazetan.

Askoz dotoreago ta ikusgarriago da akulu premi gabe lan egiten dakiten idiak eskeintzen duten lana.

Animali askotxok, ordea, akulurik gabe eztute kolperik jo nai izaten, eta zulatuta ere ez jabeak nai ainbat.


Gustatu ala ez gustatu, idi probak etxeko oiturak ditugu. Gure lurrean bakarrik ezagutzen dira. Euskaldun menditarrak aiekin gozatzen dira geien.

Ama eztegu maitatzen beste emakumeak baño apañagoa edo ederragoa dalako, gure ama dalako baizik.

Probak ez maitatzea edo gutxi maitatzea barkagarri da; gorrotatzea da ain errez konprenditu ezin ditekena.

Probatzaz kanpo, aurtengo euskal festetan, Trinidadeko plazan, izango da ikusgarri bikañik.

Agorra'ren ogeian, eguardiko amabiterdietan, mallarik goleneko lau aizkolariren arteko zeingeiagoka ikusteko zoria izango degu.



Errekalde ta Yurrebaso gipuzkoarrak, batetik; Astibia ta Berekoetxea naparrak, bestetik.

Bikote bakoitzaren lana: lau egur 60 ontzako, lau 54 ontzako, ta sei 48 ontzako ebatea da.

Denborarik gutxienean botatzen ditun bikotea nagusi.

Gaur gaur bezela, aizkolari artean eztiteke leiaketa oberik antolatu. Laurak dira zein baño zein, txanda librean aritzeko.

Aa, ta, aztu baño len, beste onoko au esan bear dizutet.

Egun berean, arratsaldez, Euskalerriko txapelketa jokatuko dala sokatiran. Zortzi milla pezetako saria izendatu dute irabaztunentzat.

Saiatzeak balio ote duen esango nuke.

Or ikusiko dituzu-nola ez-ingurutako kuadrillarik latzen eta trebeenak. Pezeta oiek oso extimagarriak izanarren, diruari baño geiago begiratzen zaio erriaren izen onari. Arrokeri au barkagarri da, deportean, gañontzeko bizimoduko artuemanetan arrokeria baño itxusiagorik ezer gutxi bada ere.

Programa eskuratzen degunean izango degu zer itzegin.

Ta, geure gauzak geuk astindu bear ezpadituzu, besteren bizkar utzita eztegu atarramentu onik izango.

Gure erriaren ezaugarri danak arrera berezia izaten dute "ZERUKO ARGIA'n". Ala izango dute Donosti'ko euskal festak ere.

BASARRI

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

ANTZERKI TXOKOA

Gure Txokorik gabe zenbaki batzuek igaro dira, bañan emen gera berriro; udara bukatzen dijoan bezela bizia sortzen asia baita antzerki taldeetan. Lan asko egin bearra dago urte buru onetan eta zenbat eta lenago asiera eman ainbat eta obeago.

ooo——OOO——ooo

Andoain'go "Larramendi" taldekoak ez dute oporketarik izan udaran, eta oek jarraitu da egin bear dutena. Oraindik orain "Arresi laiza" antzeztu zuten eta Iraillaren azken alderako ia beste bat prestatzeko betarik izango ote duten pentsatzen ari dira. Antzerkia aukeratu ta ekitekotan dira nola nai, gaur ez bada biar egingo dutela ta. Erriko seme dan Martin Ugalde'k. aspaditik Ameriketara joanak idatzitako "Ama gaxo dago" antzerkia da ikasten ari direna.

ooo——OOO——ooo

Antzerki taldeen artean zabaltzeko beste antzerki bat prest dago. "Etxerako nor" Kepa Sarriegi ta Jakin Karraskedo'n artean sortua. Kepa Sarriegi'ren antzerkirik ez da ezagutzen gure artean naizta bizpairu idatziak euki, ondo etorria izan dedilla ba.

ooo——OOO——ooo

Urtero bezela laister emango zaie asiera Donostia'ko Euskal Jaiari. Antzerkiak, nola ez, badu sarrera Jai auetan, ta orrela Antzoki Zarrean illen 12'an Jarrai" taldeak P. Larzabal'en "Nor alkate" antzeztuko du. Jendeak parre egin nai duala ta orra aukerako antzerkia eskuratu.

ooo——OOO——ooo

Atzoko ametsak gaur egi biurtzen ari dira antzerki galetan. Gure artxiboa ezin pentsa zezakean bezin azkar, bateri ta besteari esker, geitzen ari da. Azkenengoak Joxe Antonio Arkotxak biali dizkigu, berak idatzitako "Gabon gabontzeka". "Nor nori ziria sartu" ta "Arantzazuko anai Patxi". Besten bateri azken ikutalditxoak ematen ari da ta denpo asko baño len eskuratuko digu baita ere. Antzezlariok, auek ez dira, eder-eder gordeta eukitzeko idatziak izan, la ba!

ooo——OOO——ooo

Eibar'ko antzez idazlariaren batzarrean gauz askotaz itzegin zan; gauz asko oietako bat zan: Euskaltzaindiak bi urtetik bein antzerki sariketa bat eratzen du. Euskaltzaindikoak urtero, azken urte auetan beintzat, urtearen asieran Errege egunez, Bilbo'ko antzoki batean antzeki bat eratzen du. Saritua izan dan antzerkia gelenatan, beti ez esateagaitik, ez da iñun ematen. Ta galdera: Zergaitik Euskaltzaindiak berak eratutako egun orretan joan bear duan taldeari lenbiziko saria erabazi duan antzerkia egitera beartu ez? Era guzietako taldeak daude ta batek ez bada besteak egingo luke, ori da gure iritzia beintzat. Idazlarientzat beste sari bat geiago izango litzake ta errarentzat euskal antzerki unearen ezagubide aukerakoa. Euskaltzaindiak du onetan itza.

ooo——OOO——ooo

Iraillaren erdi aldera idazle ta antzezlariaren ordezkariak billera bat izango dute. Egin bearren artean, urrengo illean, urrillean, antzezlari denak izango duten billerako gaiak aukeratzea izango da.

ooo——OOO——ooo

Aurretioko beste zenbaki batean susmo baten berri ematen nuan esanaz Aretxabaletan antzerki talde bat lanean gogor ekiteotan otezan; ba gaur esango dizuet ez dala susmo bat bakarrik, bertan egia zala esan bai zidaten.

BEOBIDE TAR IÑAKI

JUAN LOPETEGI BIZKAI'KO bertsolarien txapeldun

JUAN MUGARTEGI BIGARREN

Joan dan agustuaren 17-an egin da Ondarroa-n Bizkaiko bertsolarien azken txapelketa nagusia, guztiak dakigun bezela, Euskal Akademiak antolatua. Zortzi bertsolarik parte artu zuten: bi orain urte pare bat Bizkaiko txapeldun ta bigarren gertatuak eta beste sei egun berean, goizean, Gernika-n egin zan azken aurreko txapelketan aurrera pasatua. Lendabiziokoak: Juan Lopategi eta Juan Azpillaga. Gaiñerakoak: Jose Maria Arregi, Ireneo Ajuria, Juan Mugartegi, Deunoro Sarduy, Basilio Pujana eta Abel Muniategi.

Ondarroa-n egun ortan arrantzale eguna egiten da eta jentez beterik zeuden bazter guztiak. Alkondara urdiñak eta erropa urdiñak eta erropa urdiñak ia besterik etzan ikusten alderdi guztietan.

Jokatu zan txapelketa eta juraduak lau bertsolari pasatu zituen aurrera: geroago txapeldun eta bigarren geldítu ziranez gaiñera Jose Maria Arregi eta Juan Azpillaga. Azkenengo saioan ekitaldi oso ona egin zuten Juan Lopategi eta Juan Mugartegi-k eta juraduak aurrena aipatu degunari eman zion txapela, iru boto bildu baitzituen bere alde bigarrenak bi. Biak joango dira Bizkaiaren izenean Euskalerri osoko txapelketa nagusira. Jose Maria Arregi izendatu zan irugarren.

Ondarroa-ko alkate Arambarri jaunak eman zituen sariak: Bizkaiko Diputazioaren Kopa nagusia, Bizkaiko Ahorra Kaxarena, Ayuntamentuaren bandeja eta bakoitzari tokatzen zitzaion dirua.

Juradua osatu zutenak dira: Alfonso Irigoyen, gaiak jarri ta txapelketa zuzendu zuena, Aita Antonio Zavala S. J., Aita Martzel Andrinua pasionista, Gabriel Aresti eta Agustin Zubikaray. Goizekoan Jose Etxeandia jauna ere izan zan.

Gernika-ko txapelketan zortzi bertsolarik kantatu zuten eta asieran esan ditugun seirak gelditu ziran arratsaldean Ondarroa-n saiatzeko. Ala ere aurrena eta bigarrena ere nabarmendu ziran. Juan Mugartegi-k irabazi zuen lendabiziko saria eta Jose Maria Arregi-k bigarrena. Gernika-ko alkate Augusto Unzeta jaunak eman zion Ayuntamentuaren Kopa nagusi gelditu zanari.

Bezperan Igorre-n egin zan alderdi artako bertsolarien txapelketa eta Basilio Pujana atera zan garaille. Orregatik parte artu zuen biaramonean Gernika-n.

Bertsolaritzaren pausoak aurrera dijoaz gazte jendea sendo nabaritzen baita bultzaka. Ala bear du izan ere etorkizuna indartsua izan dedin nai badegu.

Arturo Serrano jaunarekin izketan

Aurrez-aurre bere "kamerino" 'an arkitzen det diretore auxe. Antzerkiaren txolarte batean, une bat eskatzen diot eta alaxe artu eman batera astera guaz.

Gizon borobilla, lan-egille (empresario) bat dala ezin ukatu. Bere tankerak erakusarazten dit ondo egiña dagoela lan ontarako. Begi zorrotz eta txikiak, beti urduriak, nabaitzen gizakitasun aundikoa dala.

—Noiztik zera donostiarra?

—Ondarrabi kalean jaio nintzan 1906'garren urtean. Gure aita Castejón naparrokoa zan. Eta ez dakizu zenbait pozten nauen Euskalerrian jaioa izatea.

—Nolatan izan zan teatroruntz ipintzea?

—Gure aita zalarik Teatro Infanta Isabel'eko diretorea, 1925'garren urtean "Gigantes y Cabezudos" pelikula egitera zijoalarik produtore bezela, bere kotxean, alkarjo tamalgarri batean il zan...

—Nola ikusten du Arturo Serrano'k teatroaren etorkizuna, gaur irudi baitu exkax xamar irauten duala?

—Zaletasun aundia nabaitzen da gaur gure gaztedian, batez ere Madrilen. Gaur Talde geiago dabiltza beren Tournee'tan lenago baño. Orain dala berrogei urte Madrilleko teatro onenean "La Princesa" 'n. obra batek etzuen zortzi egun irauten eta gaur eundik gora askotxo dira teatro bat baño geiagotan ipiñak daudenak, eta ¡irurogei pezta butaka...!

—Euskal-erriak maite al du teatroa?

—Euskal-erria edertasunaren maitagarri da. Erri jakintsua dalarik kultura obea daukalako. Bañan musikarako zaletasun aundiagoa duela uste det. Eta arritzen nau nolatan Aiuntamentu eta Diputazioak ain laguntza gutxi erantsi dioten alako agerpenari. Ala balitz gustora jarriko nitzake Talde baten buru, gure musika zarra eta berria mundu guztiari erakusaraziaz. Usandizaga'tik asi eta gaurkoenetaraño oak emanaz.

—Zein, zure iritziz, "geldituko" da idazleen artean lan iraunkor batekin?

—Estilo askotakoak dira "geldituko" diranak. Zarrenetan or dauzkagu Benavente, Pemán, Arniches, Muñoz Seca, Quintero eta abar... Bakoitza bere estiloan iraunkorragoa izanik Pemán eta Benavente'n lanak. Gaur ere or ditugu bai onak eta trebeak. Buero-Vallejo, Iriarte, Paso eta besteak. Zer esanik ez Llorca, Jardiel Poncela eta Casina'tzaz. Izendatuak eta beste norbait ere utzi baldin badet barkatu, jendeak eskatzen ditunak dira. Kontuan euki jendeak eskatzen duala eta ez "Empresa" 'k. Orixe bera ikusten degu Pintura, Zinean, Dantzetan, Abeslarietan. Leenago polemika geixiagoa sortzen zan eta batasun bat, "kriterio" bat ez genuen sumatzen. Gaur beste baretasun klase batekin ikusleak obetoago ulertzen dute...

Alaxe bukatzen degu ikustaldi auxe. Beste gauz asko ere esan ditu bañan tokirik ez dago geigorako. Zerbait ikasi degulakoan nago. "Urren arte" jator batekin agurtzen det Serrano jauna, beste egite artean Consejo Superior de Teatro'koa izanik ia laguntasun pixken bat irixten digun.

XABIER T.



Nork KUKURRUKUiii¿¿¿

Ollarrak

ollotegian?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian

ERLOJUTEGI
BITXITEGI
ZILLARTEGI

LA JOYITA

Aldamar, 12
DONOSTIA
(Brecha ondoan)

Gauza batean gauza bi, Usain gozoa ta garbi: «Colonial» lexibak dauka Bakarrik birtute ori. Bizkayan bera nagusi Usain gozoaz ain garbi.
«LEJIA COLONIAL» izena
Ta egillea: AZUMENDI
«LEJIA COLONIAL»
Novia Salcedo, 21
BILBAO

Oyal s. a.

OYAL ETA EFORRU ALMAZENA

PAREGABEKO TA BIKAIÑENAK

Telefonua 14304

Garibay, 4 - DONOSTIA

GURELESA

GIPUZKOA'KO TA NAPARROA'KO ESNE ONENAKIN GERTUTAKO ESNEKIAK: ESNE PASTERIZATUA, ESNE SOILLA, ESNE-AUTSA, ESNE-GAIÑA, GURIÑA TA ABAR. EGUNGO EGUNEAN, LURBIRA OSOKO ERRI AURRERATU GUZIETAN, ONELAKO ESNE TA ESNEKIAK BAKARRIK ERABILTZEN DIRA

GURELESA

SAN BLAS, SAN BLAS, SAN BLAS...!

Udan kendu eiguk egarria; Neguan osatu eztarria. Ze edari, SAN BLAS edaria! Gozoa eta maitagarria.

Gorostiaga eta Goitisolo
BILBO

ARANZADI'tar J. M.
Era guzietako seguroak

Barzelona'ko «LA CATALANA»
Seguroetako ordezkaria Gipuzkoan
S. Marcial, 33 entlo.
Urrutizkiña 19226
DONOSTIA

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

Euskalerriko arte zaarraren sustraiak, Santimamiñe-ko aitzuloan

Bizkaiko Kortezubi erriaren lurretan arkitzen daSantimamiñe deritze zaion aitzulo aipatua, Basondo auzoan. Arzulo au, troskaz ondo ornitua da eta orrek ematen dio gutxi bezelako edertasuna izatea. Baña, bere fama ez dio edertasun orri zor; baizik, bere barnean dituan arriaroko pintureri.



Arriaroko Magdaleniense garaikoak dira. Baña garai ontako pintura zaarren denborakoa; 18.000-tik 20.000 urtera kalkulatzen zaizkie, izango dituztela. Kolore bat bakarrik dute: beltza. Pintura errupestre oietan polikromia sartu aurretikoak. Au da: Lascaux, Altamira, Niaux, Pech-Merle eta oietan agertzen diran kolorezkoak baño leenagokoak. Ta, orregaitik, arkeoloji aldetik balore berezi bat dute, Santimamiñe, Venta Laperra, Las Monedas eta oietan arkitzen diran pinturak izan bai ziran oñarri arriaroko arte aren jarraipenetan.

Orregatik, duen garrantzia ikusirik, penagarria izan da Museo San Telmon iriki berri duten "Museo del Hombre Vasco" sail orretan, ainbeste tokitako pinturen azalpenak jarri dituztelarik, Santimamiñe-korik ez ipintea. Gañera, jakinik era zear orretan ezagutzen dan beorrik bikañena Santimamiñekoa dala. Oraindik denboraz daude eta uste dut aintzat artuko dutela baztertxoren batean Santimamiñeko irudiren bat jartzeko. Usterik, denborarekin, bai arkeologoentzat edo bai turistentzat, Orio-koarekin izan lezakean ar-eman estuari geiago lagunduko diola. Inguru-kook alkarri laguntza ori ez badiogu ematen, auzokoak ez dira etorriko laguntzera.

Pintura oiek 1916-an billatu ziran, eta 1918-an egin ziran lenengo azterketak Aranzadi, Barandiaran eta Eguren jaunen aginduepean, Bizkaiko Aldundegiaren laguntzarekin. Eta, orain arte aztertu diran lurretan erdiko arriaroaren asierara arte eldu dira.

Magdaleniense garaia izango da noski gizona eizatik eta arratzatik bizi izan zan garai guzietan aurreratuena eta arriaroko kulturetan aberatsena. Pinturetan ez-ezik arrizko eta ezurrezko tresnetan ere nabari da Magdaleniense ortan zuten aurrerakuntza. Kultura zaar orren lorratzat Frantziako Dordoñatik Asturiaseranok arkitzen dira. Arkeologo batzuek Cultura Franco-cántabra izenez ezagutzen dute, eta kultura orren biotza sarkaldeko Pirineoa da, Euskalerria bere barnean duala. Barandiarank dio, kultura onetan, asi Dordoñatik eta Asturias-eraño senidetasun berezi bat arkitzen dala alkarren teknika estiloetan, armetan, tresnetan eta bestelao zenbait gauzatan, eta oituren batasun bat ere nabaitzen dala artearen kezketan bezela. Ta, garbi adierazten dutela bizibide berdiñeri lotuak giro fisiku batean, agiriaz gizarte artu-emanak oso estuak eta iraunkorrak izan zirela alkarrekiko.

Orregaitik, gauza interesantea da onetzaz ere zerbait arduratzea, ta batez ere Santimamiñe ezagutzea. Aitzulo ontara bizita bat aski da arriaroko kultura ta prolemen giltzarekin jabetzeko. Magdaleniense garaia goi arriarokoa da eta bere denbora, gutxi gora-bera, orain 12.000 urtetik 30.000 urteraño kalkulatzen da. Europa erditik salkaldera zabaldua zan, eta batez ere Dordoñatik Asturiasera arkitzen da bertako aberastasunik aundiena. Euskalerrian aitzulo askotan billatzen dira bere azterranak eta periodo ortako une guziak agiri dira, aipatuenak Isturitz, Etxeberri, Aizbitarte, Sasiziloaga, Aitxerri, Urtiaga, Leze-txiki, Goikolaua, Lumentxa, Bolinkoba, Venta Laperra ta abar, beren artean aipagarriena Santimamiñe dala. Santimamiñek bai ditu pinturarik ederrenak. Garai onen beste jakingarri bat da Mamut eta Ursus spelaeus (arzuloetako artza) orduan suntzitu zala, ta beren ezurrak ugari billatzen dira.

Magdaleniensean, arrizko arma eta tresnez gañera, ezurrezko gauzak ere obeto lantzen zituzten, batez ere arpoi eta azkona puntak egitean. Aintziñagoko denboretan asi ziran pinturak, emen izan zuten edertasunik bikañena. Zaldiak, basauntzak, orkatzak, bisonteak, basurdak, artzak eta abar ziran gizonak eizan iltzen zituztenak, ta oiek dira errupestre pinturetan ere ugarien agertzen diranak.

Santimamiñeko pinturarik geienak, sarreratik 70 metro ingurura daude, zear-zulo batean. Agiri dira: zezena, basurdea, artza, orkatza, basauntzak, zaldiak eta batez ere bisonteak. Amezortzi bisonte daude guztira. Baña, beor bat da Magdaleniense garai zarrean ezagutzen danik onenetakoa. Begien aurrekaldean ikusita ere siniskaitz zaigu nola egin zitekean orren ondo. Ez bakarrik ondo, baizik bere inguruan dauden bisonteen antzera, estilizatua da, batez ere oñetan eta oñen apatxetan garbi agiri da estilizazio ori. Adierazten duelarik garai artarako gizonak bazuela gogoaren bearrak eraginikako expreziozko sentipena. Arrigarri zaigu nola ditekean ain denbora aurreratuetan orrelako estetika billatzea. Batez ere, kontuan izaten badegu, orduango gizon aiek buruz egin zituztela dibuju oiek; muestra gabe.


Santimamiñek ongi merezi du euskal kulturarekin arduratzen diran guzien bisita. Gañera, orain, argi elektrika jarri dutenetik dagoan aukerarekin.

Kortezubi Gernikatik lau kilometrora dagoan erritxo bat da, bere illerri zaarra, eleizaren alboan, egal zabal batekin estaldurik duela. Oitura zaarrekoa baita ildakoeri eleizpean lur ematea; eleizak bete ziranean asi ziran kanpoan illerriak egiten, baña Kortezubin, agiri daniez, kanpokaldetik ere estalpea bear zuan eta eleizari egalak luzetzen jarraitu zuten. Beste gauza jakingarri bat, eleizako ateak barrukaldetik daraman ur-bedinkatu ontzia da, erromaniku kapitel batekin egiña ta ormari barnean sartua. Lenagoko eleiza zaarraren agiria noski.

Gernikatik joanaz, Kortezubira eldu baño lentxuago dago eskubirako bide bat, eta Bañu-etxearen ondotik igaroaz Lezika baserriraño allegatzen da. Baserritik belaxe dago arzuloa. Lezika baserri onetan gordetzen dute Santimamiñeko giltza, ta bertako semeak egiten du erakusle. Oso ongi gertatua dago edozeñi adierazteko pinturen berri ta baita arriaroko berri ere. Eztu alperrik izan Barandiaran maixutzat.

Gauza batekin gaude seguru, iñor eztala damutzen bertara egiten duan osterarekin Zu ere, irakurle, baldin ezagutzen ez baduzu, joan zezake aitzulo zoragarri au ikustera. Nornai joteko bezela gertatua dago, argi ta guzi. Ta, gure erriaren agiri zaaretako gauzarik berezienak an arkituko dituzu.

JUAN SAN MARTIN




GURE KONTSEJUA DA

ZOAZ Anjelita Martinez'enera

BITXITEGIA

Au da euskaldunen etxea. Bertan arkituko dituzu salgai merkeak eta bailo ta iraupen aundikoak.

Plaza de Guipúzcoa, 11 SAN SEBASTIAN



"ZERUKO ARGIA" - Oquendo, 22 - SAN SEBASTIAN
FRANQUEO CONCERTADO N.º 3/ 21

"Gráficas Navarras, S. A." - Pamplona España'n egiña D. L. NA. 80-1963